


ASKOTARIKOAK GARA, BERDINAK GARA**2. Elkarri entzutea**

Talde-kohesioa indartzeko, oso garrantzitsua da **taldekideek elkar ezagutzea**, haien interesak, beharrak eta sentimenduak zein diren jakitea. Horrek laguntzen du alderdi berdinak, ezberdinak eta bakoitzaren berezitasunak azalerazten eta taldearen aniztasuna baloratzen, nork bere identitatea eta taldearena eraikitzen lagunduko dien taldekide izateko sentimendua izan dezaten.

Jarduera hau egin baino lehen, komenigarria da  ariketa egitea giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

HELBURUA

- Ikaskideek ondo egoteko zer behar duten jakitea.
- Ikaskideak gaizki sentiarazten dituzten egoerak identifikatzea.
- Txanda errespetatzea.

GARAPENA

Egiten hasi baino lehen, irakasleak adieraziko du zertarako egiten den jarduera hau eta zer lortu nahi den, baita errespetuzko giro batean egingo dela guztion iritzia —gustuak eta sentipenak errespetatuta—, pertsona guztiek askatasuna izan behar dutela beren beharrei buruz hitz egiteko eta, horretarako, entzuten jakitea oso garrantzitsua dela.

Galderak banatuko zaizkie ikasleei erantzunak **bakarka** emateko. Azpimarratuko zaie komeni dela jokabideak oso zehatzak izatea (adibidez, “ondo tratatzea” ez litzateke zehatza izango; horren ordez, honelako erantzunak izan daitezke: “jolasetan onartzea, egia esatea...”), baita norberak bizi izandakoak ere.

Ondoren, **binaka** jarriko dira eta elkarrizketa egingo diote elkarri, “Elkarrizketarako gidioia” izeneko eranskina erabiliz eta entzute aktiboaz baliatuz. Jarduera honetan ondo azalduko zaie zertan datzan entzute aktiboa izatea. Galderak egiten dituenak ezin izango du hitz egin: entzun eta entzuten duena idatziz jaso, besterik ez. Ezin izango du ezer adierazi ez hitzez ezta hitzik gabeko hizkuntzaz ere. Jarduera honen lehenengo fasean, bikote bakoitzean kideek bata bestea elkarrizketatuko dute, gidoiari jarraituta, eta erantzunak orrian jasoko dituzte.

Bigarren fasean, parte-hartzaile bakoitzak bere kideari azken honek adierazitakoa irakurriko dio eta elkarri adieraziko eta zuzenduko diote, egoki baderitzote.

Bukaeran, irakasleak ikasle guztien orriak eta bertako informazioa jasoko ditu, ondorengo jardueran erabiltzeko. Ikasleen ekarpenak “Egoerak” izeneko eranskinean jasoko ditu.

Talde handian, kontuan izanik helburua zela ondo egoteko partekatzea eta agerian uztea askotarikoak gairela eta gauza berdintsuak behar ditugula ondo egoteko, ikasleekin saioaren balorazio txiki bat egingo da:



NI ETA NIRE TALDEA

- Zer egin dugu ondo ?
- Zer hobetu behar dugu?

Irakasleak jasoko du ikasleek esaten dutena eta hurrengo saioan gogoraziko die.

DENBORA

Saio bat

BALIABIDEAK

- Eranskina: “Nork bere ezaugarriak”
- Eranskina: “Elkarrizketa egiteko gidoia”